

Joseba Tobar-Arbulu

Ingeniaria

Batasun monetarioa

Herialde baten barruan emititzen diren moneta guztiei izen berbera jartzea ez da nahikoa homogenotasuna lortzeko

■ Edozein nazio monetario banku sistema baten menpe dago, berau banku zentralak eta zenbait banku bigarrendarek osaturik. Nazio monetario baten barruan banku moneta guztiak erabat trukagarriak dira, moneta guztiak izen eta izan berbera daukatelarik, moneta nazionala alegia. Horrela, homogenotasun monetarioa factuma da. Inork ez du dudatan jartzen italiar lira, kasu, gauza bera denik ipar eta hego Italian, bi erregioen arteko desberdintasun ekonomikoa handi samarra izan arren. Banku bigarrendar desberdinen emisioa soila izanik, lirak multzo homogenoa osatzen du, espazio monetario bera alegia. Lehen begiradan ematen duenaren kontra, lirak daukan homogenotasuna ez da ondorio zuzena. Izan ere, hamarkadak behar izan dira, banku ihardueraren garapenean, amankomuneko esparru monetario homogenoa gauzatu ahal izateko, eta erregioetako banku ezberdinen moneten balio desberdinak multzo bakar baten elementu bilakatzeko.

Argi dago, beraz, nazio monetario baten banku sistema ez dela bat-batean gauzatu, arazoa ez baitzen monetek izen bera edukitzea. Historian zehar, zenbait banku bigarrendarren esistentziatik abiatutik, banku bigarrendar horien guztien moneta desberdinak homogeno bihurtzeko beste banku desberdin bat, banku zentrala, eralki behar izan da, zeinaren bitartez ez-homogeno izan diren moneta bigarrendar guztiak homogeno bihurtu

baitira, banku ezberdinen arteko *konpentsazio* mekanismoa dela bide. Banku eragiketa horren bidez, edozein moneta bigarrendar moneta zentral bilakatzeko da eta berau beste moneta bigarren bat; horrela, nazio monetario homogenoa lortzen da. Moneta bigarrendarren arteko elkartrukea *atsolutua* da, hots, moneta bigarrendar bat desagertu egiten da bestea lortzeko, benetako konpentsazioa dela bide. Garrantzitsuen zera da, historikoki ez-homogeno izan diren moneta bigarrendar desberdinek, homogeno bihurtzeko, banku zentral *berri* bat behar izan dutela.

Orokorrean, analisiak frogatzen du ezen batasun monetarioa ez dela batasun politikoaren ondorio soila, zeren amankomuneko denominadore baten ezean, banku bigarrendar desberdinek gauzaturiko emisioak moneten heterogenotasuna ekartzen baitu. Herialde baten barruan emititzen diren moneta guztiei izen berbera jartzea, beste aldetik, ez da nahikoa homogenotasuna lortzeko. Alderantziz gertatzen da, herialdearen heterogenotasun-arazoa konpondu eta gero, eta

solik orduan, moneta lokal ezberdinak batu daitezke multzo soil batean. Banku zentralaren funtziorik oinarritzeko espazio monetario homogenoa sortzeko ahalmena da, bera gabe ezinezko bailitzateke sistema monetario nazionalaz hitz egitea.

Beraz, izendapen desberdineko bi monetak ez dute betetzen irizpide eta berezitasun hori. Kasu, elkartruke baten bidez, formalki ezinezko da Frantziako liberak desagertzea Espainiako pezetatan agertzeko. Izen eta izan ezberdineko bi moneten elkartruke hori *erlatiboa* da, hau da, elkartrukearen bi terminoek irauten dute eragiketa egin eta gero ere.

Bi elkartruke moten bereizketak, atsolutua eta erlatiboa, nazio monetarioaren definizio logikora darra. Hortaz, Frantzia bere monetak mugatzen du; beste era batera esanda, liberaren definizioak Frantziaren definizioa inplikatzeko du, Frantzia beste edozein multzo monetariotatik erabat disjuntua izanik.

Elkartruke erlatiboaren esistentziak banku zentralen aniztasuna suposatzen du. Banku zentral bakoitzak moneta bakarra

kontrolatzen du, berak emititzen duen monetak nazioa bera izendatzean.

Egungo nazioarteko sasi-sistema monetarioan transakzioak elkartruke atsolutuaren menpe ez daudenez, ondorioa dramatiko da oso: kaos monetarioak eta kanpo-zorren bidez agertzen dira, bi nazio desberdinen arteko transakzioak bi moneta ezberdinen bidez gauzatzen direlako, bi moneta horiek bata bestearik murriztezinak izanik.

Europa mailan gertatzen den kaos monetarioa, kasu, europar moneten arteko elkartruke erlatiboaren ondorio zuzena da. Europar moneta desberdinak heterogenoak izanik, bereak homogeno bihurtzeko, behar-beharrezko da, lehen baldintza bezala eta ez homogenotasun ekonomiko baten geroko zerbait legez, Banku zentral *berria* eralkitzea, alegia banku zentral desberdinen banku zentrala.

Banku zentral *berria* eralki beharra dago nazioarteko moneta *berria* emititzeko, bai eta benetako konpentsazioa martxan jartzeko ere. Konpentsazio horren arabera, moneta nazional desberdinak, zeinak bere espazio nazionalan irauze, nazioarteko espaziotik desagertuko dira, euroari bide emanaz. Horrela ulertu behar da moneten arteko elkartruke atsolutua nazioarteko mailan. Moneta nazional bat, lira kasua, Italian du bere eremua; nazioartean, beste edozein europar moneterkin ez dauka inolako truke zuzenik, trukeak euroaren bidez gauzatzeko dilerarik. ■

Ramon Labaien



Anchluss Euskal Herrian

Joan ziren hauteskundeak. Estatu mailan, Aznar jaunak eta PP osatzen duten jende nahastuek amesten zuten baino txikiago. PSOEkoak beheraka, baina ez bildur ziren neurrian. Barrionuevo jauna dotore, boto pila batekin sarritua, hasi dadin indar berriekin bere balentriak errepikatzen. Espainian bipolarizatuak gelditu dira benetan jendeak, ez ote dira berriro bihurtzen hasiak beraien txuri edo gorri aukera arrisugarririk horretara? Euskal Herrian, zaituak ez baizik hamburgesa gisa, ongi txiki-tuak joan gara hauteskundera, hori izan delako betidanik gurea. Boto abertzaile kopurua beheraka, eta nola ez, ikusiz ematen ari garen irudia eta nola garen, gero eta gehiago, odol putzu batez zaituak abertzaleak, pausoz pauso desastrebateratu hurbiltzen? Eusko geografia ere zalan-zalan dugu. Orain arte, eta besteak beste ETBren eguraldi saioan Euskal Herri osoa azaltzen da, betikoa. Berri duguna eta harrigarri, *Euskararen Berri-Papera* den horretan erakusten den mapa litzateke. Euskal Herria desagertu da. Euskadi, hiru hego-probintziak osatutako bazterra besterik ez da, Nafarroak irauten du eta Ipar Euskal Herria. *Akitania* dioten inbentur horrek zanpatzen du. Anschluss Euskal Herrian eta nor, mapa hori egin duen geografo madarikatua?

Txillardegia



Yachar Kemal

Joan den martxoaren 7an, Istanbul-go turkiar tribunalkak kondenatu egin du Yachar Kemal idazlea: 20 hilabete gartzela. Arrazoina: *arrazakeria* eta *kurdial separatismoa*.

Berriak ozta-ozta heldu dira guganaino: Kurdistan urrun dago, eta nazio-arazoketaren prentsa txarra dute. Nicole Pope kazetariak *Le Monde*-n (III-9) argitaratu duen artikuluan nekez soma daiteke epaiketaren gakoa. Jatorriz Van Lakuaren inguruko (gurasok ihes egin izan zuten eskualdeko 1915ean erriusiarren okupazioaren garaian), Yachar Kemal elebiduna da; eta harro agertzen da bitasun horretaz.

Baina kurdia da. Eta Turkiarekin hausti nahi ez badu ere (familiaz erdi-erdia delako), turkiar zapalkuntza ez du onartzen: «zuk ez daukazu hoge milioi kurdial erostenik», adierazi dio berriki Yilmaz lehen ministro berriari.

Olerkiak eta kondairak idazten dituenen, Yachar Kemalak kurdial nekazariengana jozen du, eta ozenki irakurtzen dizkie. Eta hastapenetan soluzio bat ikusi uste zuen Turkiaren barruan: «Turkiako kurdialrek beren hizkuntza eta kultura segurtaturik ikusiz gero, ez dute Independentziara joko», esan ohi zuen.

Baina Turkiak zapaketa-bideari eutsi dio. Eta horretara jotatuz, dio Y. Kemalak, Ankarako Gobernuak berak azkartu du separatismoa. Erantzuna: postaz Y. Kemali bala bat bidaltzea. Zinez: *nihil novum sub sole*.

L A P h I T Z A

